

**2011KO OTSAILAREN 28AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO
OHIKO BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita zortzia.

HILABETEA: Otsaila.

URTEA: Bi mila eta hamaika.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko hamarretan.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Aitor Aldasoro Iturbe

Fernando Boada González

Josi Insausti Mujika

Begoña Lasa Royuela

Julio Herreros Serna

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2011ko otsailaren 21eko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute aktarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- OBRAK ESLEITZEA:

1.- ERROMESENTZAT ATERPETXEA.

Ezagutzera eman da, 2011ko otsailaren 28ko kontratazio-mahaiaren proposamena:

“AURREKARIAK

I.- 2011ko otsailaren 4ko Gobernu Batzordeak, Toledo Taldeak egindako proiektuaren arabera, Igartzako errotariaren etxean erromesentzat aterpea egiteko obrak prozedura negoziatuaren bidez kontratatzea erabaki zuen, horretarako baldintza administratiboa onartuz., esleipen-irizpidea, prezio baxuena izanik.

Lizitazio prezioa, 149.710,39 €tan, BEZ barne ezarri zen.

II.- Prozeduran parte hartzeko, jarraian aipatzen diren enpresei gonbidapena bidali zitzaien. Eskaintzak aurkezteko epea, 2011ko otsailaren 21ekoa izan zen.

III.- Bakoitzak eskainitako prezioa ondorengoa da:

Lizitazioa prezioa: 149.710,39 €tan, BEZ barne.

EMPRESAK	PREZIOA
BELKOAIN	133.709,57
IKENA	111.496,74
CONSTRUCCIONES ITURRIOZ	125.765,63
CONSTRUCCIONES ORIAKO	143.455,08

Horren ondorioz, Kontratazio Mahaiak Gobernu Batzordeari ondorengoa proposatu dio:

Lehenik. Aipatutako kontratua, IKENari esleitzea, 111.496,74 €tan, BEZ barne. Egikaritze epea, zortzi astekoa izango da, zuinketa akta sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita eta hau kontratua sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita hamabost eguneko epean sinatuko da.

Aldez aurretik, adjudikaziodunari jakinaraziko zaio hamar laneguneko epean, **4.724,43 €**ko behin betiko fidantza aurkeztu behar duela.

Abala aurkeztu eta gero, zerbitzua esleituko da eta esleipena egiteko Alkate jaunari baimena ematen zaio. Jarraian kontratu administratiboa sinatuko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da kontratazio-mahaiaren proposamena.

2.- EUSKALTEGI ZAHARREKO GELAK BERRITZEA.

Ezagutzera eman da, 2011ko otsailaren 28ko kontratazio-mahaiaren proposamena:

“AURREKARIAK

I.- 2011ko otsailaren 21eko Gobernu Batzordeak, aipatutako obrak prozedura negoziatuaren bidez kontratatzea erabaki zuen, horretarako baldintza administratiboa onartuz, esleipen-irizpidea, prezio baxuena izanik.

Lizitazio prezioa, 137.290,64 €tan, BEZ barne ezarri zen.

II.- Prozeduran parte hartzeko, jarraian aipatzen diren enpresei gonbidapena bidali zitzaion. Eskaintzak aurkezteko epea, 2011ko otsailaren 25ekoa izan zen.

III.- Bakoitzak eskainitako prezioa ondorengoa da:

Lizitazioa prezioa: 137.290,64 €tan, BEZ barne.

EMPRESAK	PREZIOA
CONSTRUCCIONES URBYCOLAN	119.204,36
CONSTRUCCIONES ITURRIOZ	127.460,64
CONSTRUCCIONES ORIAKO	132.384,52

Horren ondorioz, Kontratazio Mahaiak Gobernu Batzordeari ondorengoa proposatu dio:

Lehenik. Aipatutako kontratua, CONSTRUCCIONES URBYCOLANri esleitzea, 119.204,36 €tan, BEZ barne. Egikaritze epea, zortzi astekoa izango da, zuinketa akta sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita eta hau kontratua sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita hamabost eguneko epean sinatuko da.

Aldez aurretik, adjudikaziodunari jakinaraziko zaio hamar laneguneko epean, **5.051,03 €**ko behin betiko fidantza aurkeztu behar duela.

Abala aurkeztu eta gero, zerbitzua esleituko da eta esleipena egiteko Alkate jaunari baimena ematen zaio. Jarraian kontratu administratiboa sinatuko da.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko ondorengo iritziak azaldu dituzte:

EAJ, ALKARBIDE, EB eta PPko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE) adierazi du bere taldea ez dagoela ados, bulegoak berrantolatzekean ez delako egin dauden beharrei erantzuteko azterlan orokorra eta horren ondorioz inoiz ez direla aurreikusi bulegoak egitea talde politikoentzat. Beraz adierazi du, bere botoa aurkakoa izango dela.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 5 (EAJ, ALKARBIDE, EB, PP).

Aurkako botoak: 1 (PSE-EE/PSOE).

Abstentzioak: 0)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

3.- ZERBITZUAK KONTRATAZEKO ESLEITZEA.

UDALARENTZAT ETA ORGANISMO AUTONOMOENTZAT ASEGURU-POLIZAK.

Ezagutzera eman da, 2011ko otsailaren 28ko kontratazio-mahaiaren proposamena:

BEASAINGO UDALARENTZAT ETA BERE ORGANISMO AUTONOMOENTZAT ASEGURUAK KONTRATATZEA.

AURREKARIAK

1.- Gobernu Batzordeak, 2011ko urtarrilaren 21ean egindako bileran erabaki zuen, deialdi publikoa egitea, prozedura irekiaren bitartez, Beasaingo Udalerako eta bere organismo autonomoentzat hainbat aseguru poliza kontratatzeke. Horretarako baldintza plegu administratiboa eta teknikoa onartu zen.

2.- Deialdia, 2011ko urtarrilaren 27ko GAOean argitaratu zen eta eskaintzak aurkezke hamabost eguneko epean, bi enpresa hauek aurkeztu ziren: LAGUN ARO, S.A. ETA MAPFRE EMPRESAS.

A kartazala, hain zuzen ere, kontratatzeko ahalmenarena aztertu ondoren, esan daiteke bi enpresek aurkeztutako dokumentazioa zuzena dela.

2011ko otsailaren 24ko datarekin B kartazala irekitzen da, hain zuzen ere, dokumentazio teknikoari dagokiona. Atal hau, baldintza pleguaren 12. artikuluan adierazten diren esleipen-irizpideen arabera baloratzen da, hau da:

“Txosten Teknikoa: (gehienez ere 30 puntu).

Irizpide honek neurtzen ditu egoera ezberdinen aurrean emandako irtenbideen berehalakotasun eta bizkortasun maila, kaltetuei arreta pertsonalizatua ahalbidetuz; eta baliabideen maila, bai pertsonalak eta baita ere aseguratuari zerbitzuan hobekuntza ekarriko diotenak.

Atal hau baloratzeko, kontratuaren helburua den zerbitzua emateko eskura jarriko diren baliabide pertsonalak zerrendatu behar dira, baita ere gainontzeko baliabideak, baldin eta hobekuntza bat ekarriko balute. <u>Lizitatzaillearentzat egoerarik mesedegarriena BAKARRIK puntuatuko da</u>	Gehienezko baloreak	
	Baliabide pertsonalak	Aurreko atalean baloratu ez diren gainontzeko baliabideak
<i>Lizitatzailleak kontratuaren helburua den zerbitzua emateko BULEGOAK baditu BEASAINEN.</i>	20 puntu	5 puntu
<i>Lizitatzailleak kontratuaren helburua den zerbitzua emateko BULEGOAK baditu 20 km-tako erradioan.</i>	10 puntu	5 puntu
<i>Lizitatzailleak kontratuaren helburua den zerbitzua emateko BULEGOAK baditu 20 km-tako baino gehiagoko erradioan, baino Gipuzkoan daudenak.</i>	5 puntu	5 puntu

12.3.Metodologia: aurkeztu daitezkeen erreklamazioen ebazpenean aplikatuko den metodologia: 5 puntu

12.4. Hizkuntza irizpidea: 15 puntu.

Aseguru etxeak euskararen erabilerarekiko duen konpromisoa neurtzen du, Udalarekin dituen idatzizko nahiz ahozko hartu-emanetan.

Atal honetan kontuan hartuko da, besteak beste Udalarekin harreman duen Aseguru Etxeko pertsonalaren hizkuntz eskakizunaren egiaztapenak eta beraien mailak.

12.5. Gainerako hobekuntzak, gehienez ere 10 puntu emango zaizkie.”

Dena dela, txosten juridikoa kontutan izanik, hots:

“1.- Enpresaren jatorria, egoitza soziala edo lekutasunari buruzko xehetasunak ezin daitezke kontutan izan, sektore publikoarekin kontratatzeko gaitasun-baldintza betetzeko.

2.- Halaber, goian aipatutakoa ere ezin daiteke kontutan izan, balorazio irizpide modura.”

Eta ikusirik eskaintza aurkeztu duten enpresek, Beasainen bulegoa dutela, ez da bidezkoa lehen atala (txosten teknikoa) baloratzea, baliabide pertsonalari buruz, izan ere, bi kasutan Udalaren alde atxikitzen den pertsonala antzekoa da.

“Beste baliabde batzuk”, izendatutako atalari buruz, positiboki baloratzen da, LAGUN ARO, S.A. aseguru etxeak, proposatutako Web inguruko baliabide informatikoa, aseguratuak une oro izapidatzen ari diren espedienteen egoera ikus dezakeelako. Aldiz, MAPFRE EMPRESASek ez du zehazten horrelakorik bere informatikako baliabideari buruz.

Atal honetan, ondorengo puntuazioa eman da:

LAGUN ARO, S.A.: 5 puntu.

MAPFRE EMPRESAS: 3 puntu.

Metodologia: 5 puntu.

Erreklamazioak izapidatzeko bi enpresek erabiltzen duten metodologiá antzekoa da. Kasu batzuetan, MAPFRE EMPRESASek proposatutako epea laburragoa bada ere, LAGUN ARO, S.A.k, SMS euskarrian zerbitzu informatiboa proposatzen du, ordaindu beharrekoa 10.000 €tik gorakoa denean. Beraz, atal honetan bi enpresek puntu berdinak lortu dituzte, hau da, 5 puntu.

Irizpide linguistikoa: 15 puntu.

Bi lizitatzailleek Udalarekin izan beharreko harremanetan, hitzez nahiz idatziz erlazionatzeko konpromisoa hasrtu dute, Aurkeztutako agirien arabera, enpresek lortutako balorazioa ondorengoa da:

LAGUN ARO, S.A.

- Bitartekaria, EGA rekin: 7 puntu.
- Aurrez aurreko harremana, EGArekin: 2 puntu.

MAPFRE EMPRESAS

- Bitartekaria, EGA rekin: 7 puntu.
- Aurrez aurreko harremana, EGArekin: 2 puntu.

Beste puntuak ez dira banatu, Aseguru-etxeek Udalarekin idatziz izan behar duten harremanei dagokielako.

Hobekuntzak: 10 puntu.

Kontratazio mahaiak zehaztasunarekin aztertu ditu lizitatzailleek proposatutako hobekuntzak eta balorazio hau eman zaie:

MAPFRE EMPRESASEk proposatutako hobekuntzen artean interesa dutenak hauek dira:

- Arrisku nagusia egiaztatzea, aseguru etxearen aldetik: puntu 1.

LAGUN ARO, S.A.k enpresak proposatutako hobekuntzen artean, interesa dutenak hauek dira:

- Udalaren jabetzakoak diren higiezinen balorazioa: puntu 1.
- Ibilgailuaren gidariari leporatu daitezkeen ekintzak eta estali gabe daudenak. Ez zaio Udalari kobratuko: puntu 1.
- Udalarenak diren ibilgailuen arteko ezbeharren likidazioa: puntu 1.

Bi aseguru-etxeek proposatzen dituzten beste hobekuntzak ez datoz bat ez kontzeptuarekiko ezta kopuruarekiko ere, baina Udalarentzat interesa duten hobariak suposatzen dute eta antzeko balorazioa ematen zaie.

2011ko otsailaren 25eko datarekin, C kartazala ireki da. Horretarako ekintza publikoa egin da eta bi Aseguru-Etxeen ordezkariak aurkeztu ziren. Aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, hobekuntzei buruz, ondorengao erabaki da:

- MAPFRE EMPRESASi puntu 1 ematea, erantzukizun zibil orokorraren I eta IV loteetan aseguraturutako kopurua handitzeagatik (1.500.00 arte).

- Aseguru-etxeak aurkeztutako beste hobekuntzak, ez datos bat ez kontzeptu aldetik begiratuta ezta kopuruaren aldetik ere. Udalarentzat interesa duen onurak suposatzen dutenez, bien eskaintzei balorazioa berdina ematen zaie.

Aseguru-etxeek aurkeztutako proposamenak berriz, ondorengoak dira:

MAPFRE EMPRESAS

- Erantzukizun zibila orokorra: 33.617,73 € 8 (franquicia 1.000 € eta ezbeharragatik gehienezko kalte-ordaina, 1.500.000).
- Idazkariraren erantzukizun zibila: 753,66 €.
- Kontuhartzailearen erantzukizun zibila: 753,66 €.
- Ibilgailuak: 7.155,95 €.
- Arrisku anitza: 21.835,41€ (frankiziarik gabe).

Prima guztira: 64.116,41 €.

LAGUN ARO, S.A.

- Erantzukizun zibila Idazkariaren erantzukizuna Kontuhartzailearen erantzukizuna:
- A aukera: gehienezko kapitala, 618.381,38 eta 1000 €ko frankizia: prima, 26.215,67 €.
- B aukera: gehienezko kapitala, 618.381,38 eta 2000 €ko franquicia: prima, 22.283,32 €.
- C aukera: gehienezko kapitala, 901.518,19 eta 1000 €ko franquicia: prima, 32.384,06 €.
- D aukera: gehienezko kapitala, 901.518,19 eta 2000 €ko franquicia: prima, 27.526,45 €.

- Ibilgailuak: 4.884,00 €.
- Arrisku anitza: 22.555,08 € (300 €ko franquicia ezbehar bakoitzagatik).

Prima guztira:

A aukera: 53.654,75 €.

B aukera: 49.722,40 €.

C aukera: 59.823,14 €

D aukera: 54.965,53 €.

Eskaintza desberdinak baloratzeko, MAPFRE EMPRESASek egindako eskaintza bakarra eta LAGUN ARO, S.A.K egindako C aukera kontutan hartzen dira, biak frankizia berdina dutelako eta nahiz eta MAFREren kasuan gehienezko kalte-ordaina ezbeharagatik 1.500.000 € eta LAGUN AROren kasuan aldiz, 901.518,19 izan, kopuru honen gaineratik, hau da, ezbehar bakoitzeko gehienezko estaldura, MAPFREk proposatutakoa hobekuntzetan baloratu da, lehen adierazi denaren arabera.

Gainera, arrisku anitzen polizan, LAGUN ARO, S.A.k egindako eskaintzan, ezbehar bakoitzeko 300 €ko frankizia aurreikusten du, MAPFREK egindakoan ordea, ez. Horregatik, LAGUN ARO, S.A.k egindako eskaintzari, 2.670,81 € gehitzen zaio. Kopuru hau ezkeneko urtean Beasaingo Udalean izandako ezbehar kontutan izanda kalkulatu da. Beraz, baloraten diren kopuruak hauek dira:

MAPFRE EMPRESAS: 64.116,41

LAGUN ARO, S.A.: 59.823,14 2.670,81 (franquicia-hipotesiaren arabera gehitua).

Eskaintza ekonimokoa baloratzeko baldintza pleguan ezarritako formula aplikatu ondoren (12.1 artikulua), emaitza ondorengoa da:

ASEGURADORAS	IMPORTE TOTAL DE PRIMA POR TODAS LAS PÓLIZAS	INCREMENTO POR HIPÓTESIS DE FRANQUICIA	TOTAL COSTE ANUAL DE PÓLIZAS	DIFERENCIA CON LA MEDIA
MAFRE	64.116,41 €	0,00 €	64.116,41 €	-811,23 €
LAGUN-ARO	59.823,14 €	2.670,81 €	62.493,95 €	811,23 €

MEDIA MATEMÁTICA DE LAS OFERTAS	63.305,18 €
IMPORTE DEL 1% DE DICHA MEDIA MATEMÁTICA	633,05 €

ASEGURADORAS	VALORACIÓN DE LAS OFERTAS			
	PUNTOS INICIALES	INCREMENTOS O MINORACIONES POR MEJORAR O ENCARECER LA MEDIA		PUNTUACIÓN FINAL EN LA OFERTA ECONÓMICA
		TRAMOS 1%	PUNTOS	
MAPFRE	25	1	-1	24
LAGUN ARO	25	1	1	26

Horren ondorioz, enpresek lortutako balorazioa ondorengo da.

IRIZPIDEAK	MAPFRE EMPRESAS	LAGUN ARO, S.A
Memoria teknikoa	3	5
Metodologia	5	5
Irizpide linguistikoa	9	9
Hobekuntzak	2	3
Proposamen ekonomikoa	24	26
GUZTIRA	43	48

Horren ondorioz, Kontratazio mahaiak, Gobernu Batzordeari ondorengo proposamena egin dio:

Lehenik. Beasaingo Udalarentzat eta bere organismo autonomoentzako aseguru polizak, LAGUN ARO, S.A.ri esleitzeko proposatzea.

Bigarren. Aldez aurretik, adjudikaziodunari jakinaraziko zaio, **11.964,63** €ko behin betiko fidantza aurkeztu behar duela.

Abala aurkeztu eta gero, zerbitzua esleituko da eta jarraian kontratua sinatuko da.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da Kontratazio-mahaiak egindako proposamena.

4.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderetan ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko hamarrak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.